

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

3346

8/2019 LEGEA, ekainaren 27koa, 2019-2022 Euskal Estatistika Planari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak 8/2019 Legea, ekainaren 27koa, 2019-2022 Euskal Estatistika Planari buruzkoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.37 artikulua arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eksklusiboa du honako gai hauetan: (...) 37. Euskal Herriko Estatistika bere helburu eta eskumenetarako».

Artikulu hori aplikatuz, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea (apirilaren 23ko 4/1986 Legea) onartu zuen. Lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera arautu zen, bai eta jarduera horretan jardungo zuen erakundea eratu ere. Lege hori, beraz, ezinbesteko abiapuntua izan da.

Dena den, estatistika-jardueraren erregulazioa ez da arau horretara mugatzen, aurreikusita baitago estatistika-jarduera Euskal Estatistika Planak antolatuko duela. Plan horretan, indarrean dagoela egingo diren estatistikak eta antzeko beste jarduera batzuk jasoko dira, baina, horretarako, lege bidez onartu beharra dago plana. Plan horrek markatzen du jarduera-esparruaren goiko erpina, gero urteko estatistika-planek garatuko dutena.

Aurreko zazpi planak –1989-1992, 1993-1996, 1997-2000, 2001-2004, 2005-2008, 2010-2012 eta 2014-2017 aldietakoak– urteko estatistika-programen bidez garatu ziren, eta zehaztu zuten aldi bakoitzean zer estatistika egingo ziren, nork egingo zituen eta zein baldintza teknikorekin egingo ziren. Azken planaren indarraldia amaitu denez, Eusko Legebiltzarrak plan berria onartu behar du.

Premisa horiek aintzat hartuta, 2019-2022 aldirako Euskal Estatistika Plana onartuko da lege honen bidez. Bost urte horietan zehar Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-erakundeak egingo dituen estatistikak eta antzeko jarduerak ezartzen dira planean. Bost urteko lehendabiziko plana da hau, eta helburu du estatistika-jarduera legegintzaldietatik bereiztea. Izan ere, azken bi planetan, legegintzaldiek baldintzatu dute plana martxan jartzea.

Ondorioz, legearen artikuluetan definituta daude hura kokatzeko eta mugatzeko koordinatu materiala eta denborazkoa.

Legearen esparru materiala, 1. artikuluan zehaztuta ageri dena, estatistikak eta antzeko jarduerak egitean datza. Horiek guztiak zerrendatuta daude testu artikulatuaren eranskinean, legearen arau-balio berberarekin.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, planak indarrean dela egingo diren estatistikak eta antzeko jarduerak bilduko ditu. 2019-2022 Euskal Estatistika Planak ez du horien aipamen soilak egiten; aitzitik, eragiketa bakoitzaren ezaugarri nagusiak ere azaltzen ditu, uste baita horien ezaugarriak beharrezkoak direla, hobeto defini daitezela. Eta horrekin ez da deuseztatzen urteko estatistika-pro-

gramen eraginkortasuna, eragiketa bakoitzerako behar diren zehaztapenak ematen baitituzte programa horiek. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean (otsailaren 18ko 4/2005 Legean) 16. artikulua agindutakoari jarraituz –estatistiken eta azterketen egokitzapenaz ari dela–, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-erakundeak sistematikoki sartuko du sexuaren aldagaia Euskal Estatistika Planaren barruan egiten diren estatistika-eragiketetan, eta genero-ikuspegia txertatuko du bildutako informazioaren ustiapenean eta analisisian.

Eranskinean, beraz, eragiketak banan-banan aipatzeaz gain, bakoitzaren ezaugarriak ere azaltzen dira. Hona hemen eragiketen ezaugarriak:

a) Helburu orokorrak, urteko estatistika-programetan garatzen direnak.

b) Erakunde arduraduna (egilea eta, hala badagokio, kontratatzailea). Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) II. tituluko III. kapituluari aipatutako eskumena dauka. Eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-erakundearen esparruko organo eta enteei bakarrik ematen zaie, legearen 35. artikuluan zehaztutakoei, alegia.

c) Beste erakunde parte-hartzaile batzuk. Elkarrekin parte hartzeko aukera dute, bai eragiketa osoan zehar, bai eragiketaren faseren batean.

d) Gaia. Ikerketarekin lotutako jardueraren esparru generikoa mugatu behar da. Hauek dira gaiak:

- 1) Demografia eta gizarte-ohiturak
- 2) Hizkuntzak
- 3) Osasungintza eta osasuna
- 4) Hezkuntza
- 5) Lan-merkatua eta lan-kostuak
- 6) Gizarte-babesa eta gizarte-zerbitzuak
- 7) Kultura, aisia eta kirolak
- 8) Justizia eta segurtasuna
- 9) Ingurumena
- 10) Lehen sektorea
- 11) Industria eta energia
- 12) Eraikuntza eta etxebizitza
- 13) Zerbitzu-sektorea
- 14) Merkataritza eta automobil-zerbitzuak
- 15) Herri-administrazioa
- 16) Finantzak eta aseguruak
- 17) Kontu ekonomikoak

- 18) Prezioak
- 19) Gizarte-ekonomia
- 20) Estatistika-azpiegitura
- 21) Estatistika-garapena
- 22) Informazioaren gizartea eta I+G+B
- 23) Beste batzuk.

e) Egoera. Jakin behar da estatistika-eragiketari lehendik heldu zaion; hots, aurreko aldietan egin izan den, ala lehendabizikoz egiten den.

f) Emaitzak zenbatean behin zabalduko diren. Herritarrei adierazten zaie zenbatean behin izango dituzten eskuragarri emaitzak, alde batera utzita zer-nolako maiztasunarekin lan egiten den.

g) Eragiketa mota. Estatistika zein motatakoa den azaltzen da; batez ere, informazio-bilketarik ote dakarren berekin (direktoria, zentsua, laginketa bidezko inkesta), abiapuntu izan diren informazioei bestelako xehetasunik gehitzen zaien (bilketa, sintesia), edo tresna osagarriren bat ba ote den, normalizazioa, metodologia hobetzea edo estatistika garatzea dakarrena.

2. artikuluan, urteko estatistika-programen garapena eta exekuzioa ezartzen da, eta aurreikuspen bat egiten da, behar bezala arrazoituta dauden etorkizuneko beharretara egokitzeari buruz.

3. artikuluan, estatistika-jardueraren araubide juridikoa erregulatzen da, Europako Estatistiken Jardunbide Egokiei buruzko Kodeko printzipioetan eta Estatistika Ekoizpenaren Europako eskema nagusian oinarritutako estatistika-eragiketen kalitatea bermatuz.

4. artikuluan ezartzen denez, entitateek, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek obligazioa dute eskatzen zaien informazioa emateko, plan honetan arautzen diren estatistikak gauzatze aldera. Informazio horren barruan sartzen dira «datu pertsonalen kategoria bereziak», 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua aipatzen dituenak (Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). Ildo horretatik, azpimarratu beharra dago zer-nolako giza baliabideak, neurri teknikoak eta antolamendu-neurriak dituen euskal estatistika-erakundeak, bermatzeko errespetatzen direla datu pertsonalen tratamendua gizatuko duten printzipio arau-emaileak.

Bestalde, ezin da ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea (apirilaren 23ko 4/1986 Legea) estatistiken ekoizpena administrazioko datuen bidez egitearen aldekoa dela; administrazio publikoan erabiltzen diren prozedurak berritzeko egindako ahaleginak ahalik eta errentagarrien bihurtu nahi ditu, kudeaketa- eta estatistika-xedeetarako aldi berean erabil daitezten eta, horrela, ahal den neurrian ekidin nahi du bi aldiz eskatzea informazioa herritarrei, enpresei eta beste ente batzuei.

Azken xedapenetatik lehenengoan, bost aldaketa egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) lau artikulutan: 10. artikulua datu pertsonalen babesari buruzko araudira eta Estatistika Programaren Batzordeak 2005eko otsailaren 24an onartutako Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodeko printzipioetara egokitu da, administrazio-erregistroetako datuak eskuratzeari, erabiltzeari eta integratzeari dagokionez, helburu izanik informatzaileei karga murriztea, hori ez baitzegoen behar adina araututa

4/1986 Legearen 10. artikuluen 3. apartatua. Berregituratu egin dira 20., 29. eta 33. artikulua, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietara (IKT) egokitu.

Azkenik, lege honetako azken xedapenetatik bigarrena, hirugarrena eta laugarrena planaren bigarren koordinatuari buruzkoak dira; hots, denboraren koordinatuari buruzkoak. Ezartzen da 2022ko abenduaren 31n amaituko dela planaren indarraldia; hau da, aurrekontu-ekitaldien amaieran. Orobat ezarri da plana luzatu egingo dela, baldin eta ez bada beste bat onartu haren indarraldia amaitzerakoan.

1. artikulua.– Onarpena eta edukia.

1.– 2019-2022 Euskal Estatistika Plana onartzen da.

2.– Esandako plana Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera 2019-2022 aldirako arautzen duen tresna da, eta, behar izanez gero, luzatu egingo da.

3.– Planean, lege honetako eranskinean zehazten diren estatistikak eta antzeko jarduerak jasoko dira.

2. artikulua.– Urteko estatistika-programak.

1.– 2019-2022 Euskal Estatistika Plan hau urteko estatistika-programen bidez garatu eta exekutatu da.

2.– Urteko estatistika-programetan zehaztu eta definituko dira estatistika-eragiketa horien ezau-garriak, aurrekontu-zuzkiduren esparruan.

3.– Salbuespenez, urteko estatistika-programek plan honetako eranskinean jasotako ezaugarrietako batzuk aldatu ahal izango dituzte, baina horretarako, aurrez, aldeko txostena egin beharko du Euskal Estatistika Batzordeak. Aldaketa horrek arrazoitua izan beharko du, eta ez die eragingo eragiketaren izaerari eta helburuei.

3. artikulua.– Estatistika-jardunaren araubide juridikoa.

1.– Planaren ondoriozko estatistika-jarduna Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) 2. artikuluan ezarritako araudiak eta lege honek gidatuko dute.

2.– Plana garatzeko eta exekutatzeko onartzen diren urteko estatistika-programak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legearen (apirilaren 23ko 4/1986 Legearen) 2. artikuluen 1. paragrafoko erregelamenduzko xedapenen parte izango dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jardueraren funtsa izango da, batetik, Europako Estatistika Sistemaren Batzordeak onartutako Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodean oinarritutako kalitate-irizpideei jarraituko diela, eta, bestetik, estatistika-eragiketa bakoitzaren proiektu teknikoak Europako Estatistika Sistemaren definitutako Estatistika Ekoizpenaren eskema orokorrean oinarrituko direla.

4.– Publikoak izango dira beti aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera estatistika ofizialei eta Gobernuako sailtako estatistika-organoek egindako estatistikei dagozkien emaitzak, eta berriz erabili ahal izateko formatu batean argitaratu behar dira.

5.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoa betez, plan honetan aurreikusitako estatistikek genero-ikuspegia txertatuko dute bildutako informazioa ustiatzeko eta analizatzeko etapetan.

4. artikulua.– Nahitaez erantzun beharra.

1.– Nahitaez bete behar dira 2019-2022 Euskal Estatistika Planean jasotzen diren estatistikak. Obligazio horrek datu pertsonalen babesaren alorrean indarrean dagoen eta aplikagarri den araudia errespetatu beharko du.

2.– Dena den, estatistika-erakundeari emandako datuak estatistika-sekretuaren eraginean egongo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) –19. artikulutik 23.era– ezarritakoa betez.

AZKEN XEDAPENAK

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legean (apirilaren 23ko 4/1986 Legean) egindako aldaketak.

1.– 10. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Hurrengo apartatuetan ezarritakoaren arabera zehazten diren norbanakoek edo entitateek 9. artikuluan aipatzen den informazioa emateko obligazioa daukate, halakorik eskatzen bazaie.

2.– Estatistika bakoitzaren erregulazioak zehaztuko du zer pertsona edo entitate dauden behartuta informazioa ematera, edozein dela ere haien izaera fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua, eta naziotasuna, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan badute edo izan badute beren bizilekua edo egoitza, edo hor kokatuta badaude.

3.– Informazio hori baldin badator familia-intimitaterako eta intimitate pertsonalerako eskubideari buruz dagokion unean indarrean den araudiak babestutako datuetatik, honako lege-testu hauetara egokitu beharko dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, eta gainerako araudi aplikagarria. Nolanahi ere, datu horiek eskatuko dira beti interes orokorreko arrazoiengatik, estatistika-eragiketen helburuei dagokienez proportzionaltasun-irizpideekin, eta lortutako informazioen anonimotasuna gordetzeko beharrezkoak diren bermeekin.

4.– Informatzaileen erantzun-karga murrizteko, Euskal Estatistika Erakundeak eta maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoek eskubidea izango dute administrazio-erregistro eta -fitxategi guztietan dauden datuak eskatzeko eta horiek atzerapenik gabe eta doan eskuratzeko, baita identifikatutako datu pertsonalak ere. Eskubidea izango dute, halaber, datu horiek erabiltzeko eta estatistiketan sartzeko, lege honen lehen tituluko II. kapituluan araututako estatistika-jardunaren esparruan estatistikak garatzeko, egiteko eta zabaltzeko beharrezkoa den heinean.

Halaber, Estatuko Administrazio orokorraren eta bere sektore publiko instituzionalaren organo eta enteek eskatutako administrazio-datuak bidali beharko dituzte, baita identifikatutako datu pertsonalak ere, estatistika-plan eta -programetako estatistika-eragiketak garatzeko eskatzen direnean.

Euskal Estatistika Erakundeari eta maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoei estatistikak egiteko eskuragarri jarri zaizkien administrazio-erregistro eta -fitxategiek metadatuak izango dituzte.

Euskal Estatistika Erakundeak, maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoek eta administrazio-erregistro eta -fitxategien titularrek horretarako beharrezkoak diren kooperazio-mekanismoak sortu beharko dituzte.

5.– Dagokion estatistika-eragiketaren erregulazioan ezarritakoarekin bat etorriz, informatzailatzat jotzen diren entitate publiko eta pribatuei baimena ematen zaie estatistika-eragiketen organo hartzaileei interesdunei buruzko datu pertsonalak lagatzeko, haien baimenik gabe, soil-soilik estatistika-eragiketak egiteko helburuz».

2.– Aldatu egiten da 20. artikulua 3. apartatua. Honela geratzen da idatzita:

«3.– Nolanahi ere, ez dute estatistika-sekretuaren betebeharraren babesik izango fitxategi-direktorioek; hau da, ez dira babespekoak izango establezimendu, enpresa, ustiategi edo bestelako enteentzen enumerazioak eta bakoitzaren kokalekua, izena, jarduera, helbide elektronikoa korporatiboa, telefono korporatiboa eta sailkapenak egiteko tamaina- adierazlea».

3.– Aldatu egiten da 29. artikulua 1. apartatuaren a) letra. Honela geratzen da idatzita:

«a) Euskal Estatistika Planean eta urteko estatistika programetan sartutako estatistikei dagokienez:

– Estatistika-jarduera zuzentzea eta koordinatzea.

– Eragiketa bakoitzaren proiektu teknikoa onartzea.

– Lortzen diren estatistika-emaizak argitaratzea eta zabaltzea, gutxienez, Euskal Estatistika Erakundearen web zerbitzarian, eta, beste organo edo enteren batek parte hartuz gero, hori esplizituki jasotzea.

– Emaizak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu direla iragartzea».

4.– Aldatu egiten da 29. artikulua 1. apartatuaren c) letra. Honela geratzen da idatzita:

«c) Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari ofiziala izatea estatistikaren arloan, eta EAEko estatistika-erakundea osatzen duten guztien eta estatuko, eskualdeko edo, hala badagokio, nazioarteko estatistika-erakundeentzen arteko harremanak bideratzea. Horretarako, txosten bat egin beharko du, nahitaez, beste administrazio batzuekin estatistikaren inguruan akordio edo hitzarmen bat sinatu aurretik».

5.– Aldatu egiten da 33. artikulua 2. apartatuaren e) letra. Honela geratzen da idatzita:

«e) Beren eskumeneko estatistika-emaizak ofizialak beren webguneetan argitaratzea eta zabaltzea, Euskal Estatistika Erakundeari aurrez horien edukiaren berri emanda».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Planaren indarraldia.

2019-2022 aldirako Euskal Estatistika Plana indarrean jartzen denetik 2022ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Luzapena.

Planaren indarraldia amaitzen denerako beste Euskal Estatistika Planik onartu ez bada, plan hau automatikoki luzatuko da harik eta beste plan bat indarrean jarri arte, aurrez ezarritako epeak edo aldiak direla medio kanpoan utzi behar diren estatistika-jardunen kasuan izan ezik.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA, EKAINAREN 27KO 8/2019 LEGEARENA,
2019-2022 EUSKAL ESTADISTIKA PLANARI BURUZKOA

ESTADISTIKA-ERAGIKETEN ZERRENDA

010106	Giza garapenaren indizea
010121	Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleak
010123	Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika
010130	Biztanleriaren estatistika-erregistroa
010132	Estatistika soziodemografikoen datu-basea
010151	Eraikinen eta lokalen zentsua
010152	Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
010154	Biztanleen udal estatistika
010180	Emakumeak landa-ingurunean
010301	Demografia-proiekzioak
010302	Jaiotzen estatistika
010303	Heriotzen estatistika
010304	Ezkontzen estatistika
010305	Gizarte-ezberdintasunak hilkortasunean
010311	Migrazio-mugimenduen estatistika
010313	Inkesta demografikoa
010314	Ezkontza-hausteen estatistika
010401	Adineko biztanleen panorama estatistikoa
010800	EAEEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta
010899	Kapital sozialaren inkesta
010901	Bizi-baldintzen inkesta
010902	Denbora-aurrekontuen inkesta
010903	Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
010904	Norberaren ongizate-inkesta
010905	Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta
010906	Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak

010914	Gazteriaren panorama
010915	Panorama demografikoa
010930	Mugikortasunaren Inkesta
020702	Mapa soziolinguistikoa
020703	Inkesta soziolinguistikoa
020709	Euskararen aurrekontuak
020711	Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
020713	Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
020715	Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza eskakizuna) eta administrazio-motari jarraiki
030401	EAEko haurren aho-hortzetako osasunaren inkesta
030501	Osasunaren inkesta
030502	Arreta espezializatuaren inkesta
030503	Lehen mailako arreta publikoaren estatistika
030505	Osasun arreta pribatuaren estatistika
030506	Osasunaren panorama
030508	Euskadi eta drogak
030510	Elikadura inkesta
030580	Ospitaleetako erikortasun-estatistika
030581	Gizarte-ezberdintasunak erikortasunean
030582	Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak
040601	Eskola-jardueraren estatistika
040603	Unibertsitatearen estatistika
040605	Hezkuntzaren panorama
040606	Hezkuntzaren udal estatistika
042911	Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
042913	Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
043201	Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika- I+G
050401	Lanaren estatistikak
050402	Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta

050403	Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
050404	Lan-merkatuaren zentsua
050407	Aktibitatearen udal estatistika
050480	Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistika
050903	Laneko baldintzen inkesta
061001	Gizarteratze eta gizarte-ekintzaren gastu-estatistika
061002	Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika
061003	Gizarte-beharren inkesta
061004	Etixerik gabeko pertsonen inkesta
061005	Mendeko pertsonen estatistika
061006	Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika
061007	Genero berdintasunaren indizea
061008	EAEko diru sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen estatistika
070191	Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean
070194	Fitxategien estatistika
070196	Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika
070197	Museoen eta bildumen estatistikak
070198	Arteen eta kultura-industrien estatistika
070201	Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta
070202	EAEko sormen-industrien estatistika
070222	Kirol-ohiturak EAEn
070225	Finantzaketa eta gastu publikoa kirolean
070914	Euskal gazteria
080101	Trafiko istripuetako biktimen estatistika (hildakoak, zauritu larriak, zauritu arinak)
080102	Emakumeen kontrako indarkeriaren estatistika
082714	Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa
090001	Ingurumenaren inkesta - Familiak
090203	Airearen kalitatearen estatistika
090205	Berotegi-efektuko gasen inbentarioa

090207	Ingurumenaren adierazleak
090208	Nekazaritzako elikagaien lehen sektoreko ingurumen- adierazleak
090209	Hondakin arriskutsuen estatistika
090211	Hondakin ez-arriskutsuen estatistika
090212	Giza kontsumorako uren kalitatearen estatistika
090213	Bainu-uren kalitatearen estatistika
090214	Ur-masen kalitatearen estatistika
090215	Ur kontsumoaren estatistika
090217	Materialen fluxuaren estatistika
090218	Hiri-hondakinen estatistika
090219	Eraikuntzako eta eraispeneke hondakinen estatistika
090223	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen estatistika
090224	Ontzien hondakinen estatistika
090226	Atmosferara igorritako kutsatzaileen inbentarioa
090300	Lurraldeko eta hirigintzako jasangarritasunaren adierazleak
099901	2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak
102001	Abeltzaintzako eta akuikulturako estatistikak
102113	Basoen inbentarioa
102114	Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta
102115	Euskal nekazaritzaren kontabilitateko informazio-sarea ENKIS
102119	Baso-estatistikak
102124	Lurren banaketa orokorraren eta nekazaritzako produkzioen estatistika
102126	Lurralde-garapenaren adierazleak
102141	Nekazaritza-zentsua
102142	Saileko atari estatistikoa. Ekonomiaren Garapenaren eta Azpiegituren Saila
102145	Nekazaritzako elikagaien sektorearen panorama estatistikoa
102211	Lehorreratzeen eta lehenengo arrain-salmentaren estatistika
102212	Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa
112311	Industriaren inkesta

112312	Industria-produkzioaren indizea	
112314	Euskal industriaren panorama	
112332	EAEko energia-datuak	
122401	Eraikuntzaren inkesta	
122403	Eraikuntzaren koiunturako indizea	
122404	Etxebizitzen udal estatistika	
122411	Eraikuntzaren eta etxebizitzen estatistika-EEEE	
122414	Etxebizitzen beharren eta eskariaren inkesta-EBEI	
122416	Etxebizitzaren erabileraren inkesta-EEI	
132612	IBILTUR- EAE bisitatzeko duen turistaren ezaugarriak eta joera	
132613	Familitur-EAE	
132614	Frontur-EAE	
132680	Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta	
132710	Garraioaren eskariaren irudia	
132714	Salgaiak errepidez garraiatzearen inkesta	
132903	Zerbitzuen koiuntura-indizea	
133000	Zerbitzuen inkesta	
142511	Merkataritzaren eta konponketaren inkesta	
142530	Txikizkako merkataritzaren indizea	
142533	Merkataritza indizea azalera handiko saltokietan eta elikadura	alorreko kate handietan
143101	Kanpo-merkataritzaren estatistika	
153011	Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak	
153016	Aurrekontuak egikaritzearen estatistika	
153020	Gobernantzaren adierazle-bateria-GAB	
170111	Input-output taulak	
170112	Kontu ekonomikoak	
170114	Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak	
170115	Hiruhileroko kontuak	
170117	Hezkuntzaren kontua	

170118	Osasunaren kontua
170120	Udal BPG
170201	Elikaduraren Balio Katearen Kontu Sateliteak
170910	Gizarte-babesaren kontua
172101	Nekazaritzaren eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak
172502	Egiturazko adierazleak
172503	Familia-gastuaren inkesta
172504	Familia-etxeetako elikadura-kontsumoa
172514	Udalerrri mailako iraunkortasun-adierazleak
172515	Udal-ekipamendu eta -azpiegituren inkesta
172615	Turismoaren kontu satelitea
173001	Administrazio publikoen kontuak
173003	Euskal Administrazioen kontu ekonomikoak
173301	Ekonomia sozialaren kontu sateliteak
173302	Etxeko lanaren kontu satelitea
173303	Kulturaren kontu satelitea
173304	Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak
173305	Ingurumen kontuak. Ingurumena babesteko gastu-kontua
173401	Egiturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173402	Pertsonen eta familien errentaren estatistika
173403	Koiunturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173405	Inportatzaileen eta esportatzaileen inkesta
179901	Ezkituko ekonomiaren neurketa
182113	Nekazaritzako prezioak eta prezio-indizeak
182313	Industria- prezioen indizea
182415	Higiezinaren eskaintzaren inkesta-HIES
182480	Eraikuntzaren kostuen indizea
182532	Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak
190904	Euskal ekonomia sozialaren estatistika

190905	Euskal ekonomia sozialaren emaitzen aurrerapena
190906	EAEko fundazio-sektorea eta onura publikoko elkartegintza
200141	Etxebizitzen direktorioa
200160	Osasun-eremuen lurraldeko datu-basea
200161	Lurraldeko datu-basea
200162	Izendegiak, adierazleak, kodeak eta metadata
200163	Jarduera ekonomikoen direktorioa
200165	Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika
200170	Ekipamendu eta zerbitzuen inbentarioa
200190	Langileen estatistika EAEko sektore publikoan
200206	UDALPLAN-Informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankua
200208	INBENTARIOA-Planeamenduaren inbentarioa
202131	Nekazaritzako ustiategien direktorioa
202221	Arrantza-flotaren direktorioa
203021	Administrazio Publikoen direktorioa
203022	Atari publikoen direktorioa
203023	Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoen direktorioa
210164	Lurraldeko datu-base geoerreferentziatua
218101	Estatistika-edizio eta -egozpen metodo automatikoen I+G+b
218103	I+G+b estatistika ofizialaren ekoizpenaren eta zabalkundearen kalitatean
218106	Informazioa biltzeko moduen I+G+b
218108	Erregistro administratiboak fusionatzeko metodoen I+G+b
218109	Euskal estatistika-erakunderako prestakuntza estatistikoa
218110	Mikrodatu-fitxategiak eta estatistika-taulak babesteko metodo estatistikoen I+G+b
218113	Laginketak optimizatzearen I+G+b
218115	Area txikien zenbatespenaren I+G+b
218117	Datu estatistikoak bistaratzearen I+G+b
218120	Estatistika ekoizpenaren prozesuaren estandarrak
218122	Erantzun ezaren azterketa estatistikoaren I+G+b

218127	Modelizatze estatistiko aurreratua garatzearen I+G+b
218128	BIG DATA barne duten ekoizpen eta zabalkunde estatistikoaren prozesuen I+G+b
218129	Denborazko serieen tratamendu eta zabalkundearen I+G+b
220122	Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak
220126	Informazioaren gizartearen panorama
222140	Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea
222141	Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan
222143	E-administrazioaren barometroa
222144	Sofistikazio elektronikoaren indizea
222315	Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT
223002	Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak
223202	Berrikuntzaren inkesta
223203	Europako berrikuntzako adierazleen panela-EIS
223204	Goi-teknologiaren sektorearen estatistika
223205	Bioteknologiako I+Gren estatistika
223208	Zerbitzu publiko elektronikoaren estatistika-ZPEE
990101	Euskal urtekari estatistikoa
990104	Udal-adierazleak. Serieak
990107	Euskadi Europar Batasunean
990108	Hauteskundeetako emaitzen estatistika
990127	Ikastetxeentzako estatistika-informazioa (eskolako webgunea)
990128	Pirinioetako estatistika-atlasa
990170	Euroeskualdea zifretan
999101	Euskal estatistika-antolakundearen datu estatistikoaren bankua
999102	Eustateko Internet zerbitzaria
999103	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren atala Eustaten webgunean
999104	Sailaren atari estatistikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saila
999105	Sailaren atari estatistikoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu saila

2019ko uztailaren 9a, asteartea

II. ERANSKINA, EKAINAREN 27KO 8/2019 LEGEARENA,
2019-2022 EUSKAL ESTADISTIKA PLANARI BURUZKOA

ESTADISTIKA-ERAGIKETEN ZERRENDA ERAKUNDE ARDURADUNAREN ARABERA

02 Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

- 153020 Gobernantzaren adierazle-bateria-GAB
- 190906 EAeko fundazio-sektorea eta onura publikoko elkartegintza
- 200190 Langileen estatistika EAeko sektore publikoan
- 203022 Atari publikoen direktorioa
- 203023 Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoaren direktorioa
- 222143 E-administrazioaren barometroa
- 222144 Sofistikazio elektronikoaren indizea
- 223208 Zerbitzu publiko elektronikoaren estatistika-ZPEE
- 999105 Sailaren atari estatistikoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu saila

03 Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila

- 010180 Emakumeak landa-ingurunean
- 010930 Mugikortasunaren Inkesta
- 090208 Nekazaritzako elikagaien lehen sektoreko ingurumen- adierazleak
- 102001 Abeltzaintzako eta akuikulturako estatistikak
- 102113 Basoen inbentarioa
- 102115 Euskal nekazaritzaren kontabilitateko informazio-sarea ENKIS
- 102119 Baso-estatistikak
- 102124 Lurren banaketa orokorraren eta nekazaritzako produkzioen estatistika
- 102126 Lurralde-garapenaren adierazleak
- 102142 Saileko atari estatistikoa. Ekonomiaren Garapenaren eta Azpiegituren Saila
- 102145 Nekazaritzako elikagaien sektorearen panorama estatistikoa
- 102211 Lehorratzeen eta lehenengo arrain-salmentaren estatistika
- 102212 Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa
- 112332 EAeko energia-datuak
- 132710 Garraioaren eskariaren irudia
- 132714 Salgaiak errepidez garraiatzearen inkesta
- 170201 Elikaduraren Balio Katearen Kontu Sateliteak
- 172101 Nekazaritzaren eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak
- 172504 Familia-etxeetako elikadura-konsumoa
- 182113 Nekazaritzako prezioak eta prezio-indizeak
- 202221 Arrantza-flotaren direktorioa

04 Enplegua eta Gizarte Politikak Saila

- 010800 EAEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta
- 010905 Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta
- 010906 Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak
- 010914 Gazteriaren panorama
- 050402 Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta
- 050404 Lan-merkatuaren zentsua
- 050903 Laneko baldintzen inkesta
- 061001 Gizarteratze eta gizarte-ekintzaren gastu-estatistika
- 061002 Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika
- 061003 Gizarte-beharren inkesta
- 061008 EAeko diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen estatistika
- 070914 Euskal gazteria

05 Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

- 090203 Airearen kalitatearen estatistika
- 090205 Berotegi-efektuko gasen inbentarioa
- 090207 Ingurumenaren adierazleak
- 090209 Hondakin arriskutsuen estatistika
- 090211 Hondakin ez-arriskutsuen estatistika
- 090214 Ur-masen kalitatearen estatistika
- 090215 Ur kontsumoaren estatistika
- 090217 Materialen fluxuaren estatistika
- 090218 Hiri-hondakinen estatistika
- 090219 Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen estatistika
- 090223 Tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinen estatistika
- 090224 Ontzien hondakinen estatistika
- 090226 Atmosferara igorritako kutsatzaileen inbentarioa
- 090300 Lurraldeko eta hirigintzako jasangarritasunaren adierazleak
- 122411 Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika-EEEE
- 122414 Etxebizitzaren beharren eta eskariaren inkesta-EBEI
- 122416 Etxebizitzaren erabileraren inkesta-EEI
- 182415 Higiezinaren eskaintzaren inkesta-HIES
- 200206 UDALPLAN-Informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankua
- 200208 INBENTARIOA-Planeamenduaren inbentarioa
- 999104 Sailaren atari estatistikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saila

06 Ogasun eta Ekonomia Saila

- 153016 Aurrekontuak egikaritzearen estatistika
- 172514 Udaleri mailako iraunkortasun-adierazleak
- 172515 Udal-ekipamendu eta -azpiegituren inkesta
- 173003 Euskal Administrazioen kontu ekonomikoak

08 Osasun Saila

- 010305 Gizarte-ezberdintasunak hilkortasunean
- 030401 EAEko haurren aho-hortzetako osasunaren inkesta
- 030501 Osasunaren inkesta
- 030502 Arreta espezializatuaren inkesta
- 030503 Lehen mailako arreta publikoaren estatistika
- 030508 Euskadi eta drogak
- 030510 Elikadura inkesta
- 030581 Gizarte-ezberdintasunak erikortasunean
- 030582 Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak
- 090212 Giza kontsumorako uren kalitatearen estatistika
- 090213 Bainu-uren kalitatearen estatistika
- 200160 Osasun-eremuen lurraldeko datu-basea

09 Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

- 132612 IBILTUR- EAE bisitatzeko duen turistaren ezaugarriak eta joera
- 132613 Familitur-EAE
- 132614 Frontur-EAE

10 Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

- 020702 Mapa soziolinguistikoa
- 020703 Inkesta soziolinguistikoa
- 020709 Euskararen aurrekontuak
- 020711 Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
- 020713 Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
- 020715 Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza eskakizuna) eta administrazio-motari jarraiki
- 070191 Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren
- 070194 Fitxategien estatistika
- 070196 Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika
- 070197 Museoen eta bildumen estatistikak
- 070198 Arteen eta kultura-industrien estatistika

- 070201 Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta
- 070202 EAEko sormen-industriren estatistika
- 070222 Kirol-ohiturak EAEn

11 Segurtasun Saila

- 080101 Trafiko istripuetako biktimen estatistika (hildakoak, zauritu larriak, zauritu arinak)
- 080102 Emakumeen kontrako indarkeriaren estatistika
- 082714 Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa
- 990108 Hauteskundeetako emaitzen estatistika

12 Lan eta Justizia Saila

- 050401 Lanaren estatistikak
- 050480 Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistika
- 190904 Euskal ekonomia sozialaren estatistika
- 190905 Euskal ekonomia sozialaren emaitzen aurrerapena

46 Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

- 010106 Giza garapenaren indizea
- 010121 Gertakari demografikoak aztertzeke adierazleak
- 010123 Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika
- 010130 Biztanleriaren estatistika-erregistroa
- 010132 Estatistika soziodemografikoen datu-basea
- 010151 Eraikinen eta lokalen zentsua
- 010152 Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
- 010154 Biztanleen udal estatistika
- 010301 Demografia-proiekzioak
- 010302 Jaiotzen estatistika
- 010303 Heriotzen estatistika
- 010304 Ezkontzen estatistika
- 010311 Migrazio-mugimenduen estatistika
- 010313 Inkesta demografikoa
- 010314 Ezkontza-hausteen estatistika
- 010401 Adineko biztanleen panorama estatistikoa
- 010899 Kapital sozialaren inkesta
- 010901 Bizi-baldintzen inkesta
- 010902 Denbora-aurrekontuen inkesta
- 010903 Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta

010904	Norberaren ongizate-inkesta
010915	Panorama demografikoa
030505	Osasun arreta pribatuaren estatistika
030506	Osasunaren panorama
030580	Ospitaleetako erikortasun-estatistika
040601	Eskola-jardueraren estatistika
040603	Unibertsitatearen estatistika
040605	Hezkuntzaren panorama
040606	Hezkuntzaren udal estatistika
042911	Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
042913	Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
043201	Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G
050403	Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
050407	Aktibitatearen udal estatistika
061004	Etixerik gabeko pertsonen inkesta
061005	Mendeko pertsonen estatistika
061006	Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika
061007	Genero berdintasunaren indizea
090001	Ingurumenaren inkesta - Familiak
099901	2030 Agendako garapen jasangarriaren adierazleak
102114	Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta
102141	Nekazaritza-zentsua
112311	Industriaren inkesta
112312	Industria-produkzioaren indizea
112314	Euskal industriaren panorama
122401	Eraikuntzaren inkesta
122403	Eraikuntzaren koiunturako indizea
122404	Etxebizitzaren udal estatistika
132680	Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta
132903	Zerbitzuen koiuntura-indizea
133000	Zerbitzuen inkesta
142511	Merkataritzaren eta konponketaren inkesta
142530	Txikizkako merkataritzaren indizea
142533	Merkataritza indizea azalera handiko saltokietan eta elikadura alorreko kate handietan
143101	Kanpo-merkataritzaren estatistika
153011	Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak
170111	Input-output taulak

170112	Kontu ekonomikoak
170114	Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak
170115	Hiruhileroko kontuak
170117	Hezkuntzaren kontua
170118	Osasunaren kontua
170120	Udal BPG
170910	Gizarte-babesaren kontua
172502	Egiturazko adierazleak
172503	Familia-gastuaren inkesta
172615	Turismoaren kontu satelitea
173001	Administrazio publikoen kontuak
173301	Ekonomia sozialaren kontu sateliteak
173302	Etxeko lanaren kontu satelitea
173303	Kulturaren kontu satelitea
173304	Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak
173305	Ingurumen kontuak. Ingurumena babesteko gastu-kontua
173401	Egiturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173402	Pertsonen eta familien errentaren estatistika
173403	Koiunturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173405	Inportatzaileen eta esportatzaileen inkesta
179901	Ezkutuko ekonomiaren neurketa
182313	Industria- prezioen indizea
182480	Eraikuntzaren kostuen indizea
182532	Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak
200141	Etxebizitzen direktorioa
200161	Lurraldeko datu-basea
200162	Izendegiak, adierazleak, kodeak eta metadata
200163	Jarduera ekonomikoen direktorioa
200165	Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika
200170	Ekipamendu eta zerbitzuen inbentarioa
202131	Nekazaritzako ustategien direktorioa
203021	Administrazio Publikoen direktorioa
210164	Lurraldeko datu-base georreferentziatua
218101	Estatistika-edizio eta -egozpen metodo automatikoen I+G+b
218103	I+G+b estatistika ofizialaren ekoizpenaren eta zabalkundearen kalitatean
218106	Informazioa biltzeko moduen I+G+b
218108	Erregistro administratiboak fusionatzeko metodoen I+G+b

- 218109 Euskal Estatistika Antolakunderako prestakuntza estatistikoa
- 218110 Mikrodatu-fitxategiak eta estatistika-taulak babesteko metodo estatistikoaren I+G+b
- 218113 Laginketak optimizatzearen I+G+b
- 218115 Area txikien zenbatespenaren I+G+b
- 218117 Datu estatistikoak bistaratzearren I+G+b
- 218120 Estatistika ekoizpenaren prozesuaren estandarrak
- 218122 Erantzun ezaren azterketa estatistikoaren I+G+b
- 218126 Inkestak fusionatzeko metodoen I+G+b
- 218127 Modelizatze estatistiko aurreratua garatzearen I+G+b
- 218128 BIG DATA barne duten ekoizpen eta zabalkunde estatistikoaren prozesuen I+G+b
- 218129 Denborazko serieen tratamendu eta zabalkundearen I+G+b
- 220122 Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak
- 220126 Informazioaren gizartearen panorama
- 222140 Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea
- 222141 Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan
- 222315 Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT
- 223002 Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak
- 223202 Berrikuntzaren inkesta
- 223203 Europako berrikuntzako adierazleen panela-EIS
- 223204 Goi-teknologiaren sektorearen estatistika
- 223205 Bioteknologiako I+Gren estatistika
- 990101 Euskal urtekari estatistikoa
- 990104 Udal-adierazleak. Serieak
- 990107 Euskadi Europar Batasunean
- 990127 Ikastetxeentzako estatistika-informazioa (eskolako webgunea)
- 990128 Pirinioetako estatistika-atlasa
- 990170 Euroeskualdea zifretan
- 999101 Euskal estatistika-erakundearen datu estatistikoaren bankua
- 999102 Eustateko Internet zerbitzaria
- 999103 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren atala Eustaten webgunean

2019ko uztailaren 9a, asteartea

III. ERANSKINA, EKAINAREN 27KO 8/2019 LEGEARENA,
2019-2022 EUSKAL ESTADISTIKA PLANARI BURUZKOA

ESTADISTIKA-ERAGIKETEN ZERRENDA GAI ARLOEN ARABERA

01 Demografia eta gizarte-azturak

- 010106 Giza garapenaren indizea
- 010121 Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleak
- 010123 Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika
- 010130 Biztanleriaren estatistika-erregistroa
- 010132 Estatistika soziodemografikoen datu-basea
- 010151 Eraikinen eta lokalen zentsua
- 010152 Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
- 010154 Biztanleen udal estatistika
- 010180 Emakumeak landa-ingurunean
- 010301 Demografia-proiekzioak
- 010302 Jaiotzen estatistika
- 010303 Heriotzen estatistika
- 010304 Ezkontzen estatistika
- 010305 Gizarte-ezberdintasunak hilkortasunean
- 010311 Migrazio-mugimenduen estatistika
- 010313 Inkesta demografikoa
- 010314 Ezkontza-hausteen estatistika
- 010401 Adineko biztanleen panorama estatistikoa
- 010800 EAEn bizi diren atzerriko etorkinen inkesta
- 010899 Kapital sozialaren inkesta
- 010901 Bizi-baldintzen inkesta
- 010902 Denbora-aurrekontuen inkesta
- 010903 Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
- 010904 Norberaren ongizate-inkesta
- 010905 Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta
- 010906 Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak
- 010914 Gazteriaren panorama
- 010915 Panorama demografikoa
- 010930 Mugikortasunaren Inkesta
- 090001 Ingurumenaren inkesta - Familiak

02 Hizkuntzak

- 020702 Mapa soziolinguistikoa
- 020703 Inkesta soziolinguistikoa
- 020709 Euskararen aurrekontuak
- 020711 Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
- 020713 Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
- 020715 Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza eskakizuna) eta administrazio-motari jarraiki

03 Osasungintza eta osasuna

- 030401 EAEko haurren aho-hortzetako osasunaren inkesta
- 030501 Osasunaren inkesta
- 030502 Arreta espezializatuaren inkesta
- 030503 Lehen mailako arreta publikoaren estatistika
- 030505 Osasun arreta pribatuaren estatistika
- 030506 Osasunaren panorama
- 030508 Euskadi eta drogak
- 030510 Elikadura inkesta
- 030580 Ospitaleetako erikortasun-estatistika
- 030581 Gizarte-ezberdintasunak erikortasunean
- 030582 Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak

04 Hezkuntza

- 040601 Eskola-jardueraren estatistika
- 040603 Unibertsitatearen estatistika
- 040605 Hezkuntzaren panorama
- 040606 Hezkuntzaren udal estatistika
- 042911 Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
- 042913 Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

05 Lan-merkatua eta lan-kostuak

- 050401 Lanaren estatistikak
- 050402 Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta
- 050403 Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
- 050404 Lan-merkatuaren zentsua
- 050407 Aktibitatearen udal estatistika
- 050480 Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistika
- 050903 Laneko baldintzen inkesta

06 Gizarte-babesa eta gizarte-zerbitzuak

